

KINKELE

ADITUAK INGENIARITZA MEKANIKOAN

Michael Graf

- Produkzio arduraduna KINKELE GmbH-n -



Bai proiektu fasean zein makinaren bitzitza-zikloan zehar asebeteko duen erantzuna emateko hurbiltasuna, azkartasuna eta ezagutza sakona berebiziko alderdiak dira proiektuz proiektu SORALUCErengan konfiantza jartzeko etengabe.

Dituen kualifikazio handiko ia 350 langilerekin eta maila tekniko goreneko makina-parkearekin, KINKELE, Ochsenfurt-en dagoena, Alemaniako ingeniari mekanikoko fabrikatzaile garrantzitsuenen artean aurkitzen da.

KINKELE hornituta dago abangoardiako fabrikazio teknologiarekin soldadura, mekanizazioa, estaldura eta muntaketan, eskakizun konplexuenak asebetez era fidagarri eta doian, eta beti entrega epeak betez.

KINKELE-k gaitasuna du ingeniari mekanikoarekin lotutako ia edozein elementu produzitu eta muntatzeko.

Pieza indibidualak prozesatzen ditu doitasun handieneko sorta osoez gainera, bai ingeniari mekanikorako zein plantarako. Mekanizatzen dituzte beruna, herdoilgaitza eta aluminiozkoa, konplexutasun handiko materialez gainera. Lan ohikoenak dira torneaketa, fresaketa eta teknologia konbinazio bat konplexutasun handiko osagarrientzat.

BIMATEC SORALUCE eta KINKELE-k harreman emankorra izan dute urte askoan zehar, 2001etik hain zuzen. KINKELE-k SORALUCE-ren zazpi fresatzeko-mandrinatzeko makina ditu bere mekanizazio gaitasun osoaz arduratzen direnak. Horietako azkena SORALUCE FMT-4000 fresaketa eta torneakaetarako multifuntzio zentroa izan da.

Michael Graf, enpresako produkzio arduradunak galdera batzuk erantzun ditu BIMATEC SORALUCErekin duen harreman luzearen inguruan.

Nola baloratuko zenuke BIMATEC SORALUCErekin duzun esperientzia?

Gaurdaino esperientzia positiboa izan dela uste dugu. Dagoeneko zazpi makina ditugu, eta proiektuekin izan dugun esperientziak balio izan du gure konfiantza handitzeko BIMATEC SORALUCErekin dugun harreman komertzialean eta SORALUCE makinaren gaitasunean.

Zer nabarmenduko zenuke BIMATEC SORALUCErekin duzun harremanetik?

Gehien baloratzen duguna da BIMATEC SORALUCE eta SORALUCEko lantalde desberdinekin izan dugun harreman pertsonala. Gogobeteko gaituen erantzun bat emateko duten hurbiltasuna, azkartasuna eta ezagutza sakona berebiziko alderdiak dira, bai proiektu fasean eta baita makinaren bitzitza zikloan zehar ere, BIMATEC SORALUCE-rengan konfiantza jartzeko proiektuz proiektu.

Zure ustez SORALUCE hobetzen ari al da urtez urte?

Bai, diseinuak eta aurrerapen teknikoak etengabe hobetzen ari dira. SORALUCE-ren makinak oso garapen positiboa izaten ari dira, makinaren funtzionaltasunak hobetu eta horien onura ahalik eta gehien ateratzera



begira egindako diseinu hobekuntza batekin. Gainera, SORALUCE-ren garapen teknologikoak zentratzen dira makinaren produktibitate, doitasun eta fidagarritasun mailak optimizatzen.

Zein dira zuen eskakizun nagusiak?

Gure eskakizun nagusiek zerikusia dute produktibitatea, moldaeraztasuna, doitasuna eta fidagarritasunarekin. Ingeniaritza orokorrean egiten dugunez gero, balio handia ematen diogu makinaren moldagarritasun erraz eta azkarrari pieza-erreferentzia batetik bestera jauzi egiteko.

Orokorrean, SORALUCE makinek ahalbidetzen digute makinaren egokitze maila handiak lortzea doitasun eta produktibitate handiarekin.

SORALUCE soluzio/makinei esker lorturiko beste onuraren bat?

5 ardatzeko mekanizazioak ahalbidetzen du mekanizazio-eremu txikietara sarbidea izatea, eta horrela lortzen dugu konplexutasun handia duten piezak mekanizatzea.

Zein da zure iritzi orokorra eskaintako zerbitzuaren inguruan?

BIMATEC SORALUCEren abantailak dira harreman pertsonala eta fresatzeko makinaren sektorean ematen duten zerbitzu bikaina.

Aurrez aipatu bezala, zerbitzua kalitate handikoa da eta laguntza azkar jasotzen dugu.

Konponketak egin behar badira, buruak aldatzeko aukera izatea SORALUCE makinaren abantaila handia da. Posible egiten du makinarekin lana egitea buru baten mantentze lanak egiten diren bitartean.